

PAZKOA BARRIA

Abraam'en ondorengoak udabarrian bildotsa eskintzen eutsoen Jainkoari, urte guztiko asikin lez, eskerrak emoteko.

Baiña Israel egiptoarren menpetik askatzeko ordua etorri zanean, ordu orren aurretik pazko-afaria ospatu eben, pazko-bildotsa jan eben. Ordutik da Pazko-eguna erriaren askatasunaren eguna.

Gero, pazko-giro orretan izan zan eskiña Kristo bildots askatzaillea eta kurutzeko eriotzea jazan ondoren, errien askatzaillea berbiztu egin zan.

Erriaren askatze ori ospatu egiten dogu mezea egiten dogun bakotxean, "itun barri eta betikoaren odola, zuentzat eta guztientzat isuriko dana"

Jaunaren Erriko jazokizun orreik kontuan artu dauz Euskalerriak eta egun aundi orretan, aberri-eguna ospatzen dau.

Gure lurralde guztietatik, eta batez be Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba'tik etorten dira euskaldunak landa zabal batera. Gugaz batera dagoan erbesteko lagunak be etorten dira. An zabaltzen dabez txoznak ugari janariak eta edariak eskintzeko eta, mezea egin-ondoren, an agertzen dira erria nondik nora doan agertzen daben jaurlariak eta alderdien arduradunak: Itzaldi ederrak entzuten dira, eta oiur pozgarriak biotzak berotzeko.

Eta pozezko eguna ospatu-ondoren, bide zabaletatik zear ba-doaz euskaldunak euren errietara eta etxeetara.

Non egin olako batzarra? Non batu ainbeste euskaldun? Gasteiz-ondoko Olarizu mendi-barrenean, antxiña egazki-zelaia izan zan lekuan, egin zan urteetan batzar aundi ori, baiña etxeak egin bear ziralako, Gernika bonbardatu eben egazkiñak urten eben lekua itzi eta Altube mendiaren ondora aldatu zan toki ori, eta aspaldiko urteetan Gasteiz'ko Foronda egazkin-zelaianren inguruan egiten da.


Ez da aitzuta izteko gauzea, egun aundi orretan sortzen dan giro euskalduna, sendi-giroa, alkarrari laguntzeko gogo bizi-bizia eta aurpegietako barretxu pozgarriagaz senideak garala agertzea.

Txalogarria ainbeste asarre eta eraso agertzen daben politikuen giroan, olako alkartasuna ikustea.

OLAZAR' tar Martin'ek



IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)



EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtzen be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Sariak irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte.

EUSKARAZALEAK